

I.3. LABIRINTOA

LABIRINTOA

Azucena irakasleak, Arroztegi eskolako 4. B gelakoak, ikasleek jolas batzuk egitea nahi du, jolas horiek ikasi behar duten gauza garrantzitsu batzuekin lotzen baitira.

Hurrengo ariketan labirinto bat egin behar da. Pentsa ezazu zer egin beharko duzu zuk osatzeko.



01

Zure ustez, zein da pausoen **zerrendarik osotuena** (onena) labirintoa egiteko?

- Arkatza hartzen dut, hasi naiz egiten eta, nekatzen banaiz, utzi egiten dut.
- Buruz egiten dut ibilbidea, egin ahala zuzentzen dut eta amaieran berrikusten dut.
- Hasiera eta amaiera identifikatzen ditut, kontzentratzen naiz eta ahalegindu egiten naiz.
- Sarrera bilatzen dut eta axolagabe bidea egiten dut, ea amaierara iristen naizen.

02

Talde handian, labirintua osatzeko erabilitako estrategiak apuntatu dituzte arbelean. Adierazi “X” batekin zure ustez **EGOKIAK** eta

DESEGOKIAK direnak:

ESTRATEGIAK	EGOKIAK	DESEGOKIAK
a. Irteera eta sarrera bilatzen ditut, buruz bideari jarraitzen diot eta arkatzez markatzen hasten naiz.		
b. Nahasten banaiz, buruz berriro bidea egiten hasten naiz irteerara arte.		
c. Lehenengoan ateratzen ez zaidanean, bertan behera uzten dut eta ez naiz berriz saiatzeko.		
d. Badakit esfortzua mantentzen badut egoera konpontzea lortuko dudala.		
e. Amaieratik hasteak hobe egiten laguntzen dit.		
f. Hainbeste marraz ikusten dudanean burua nahasten zait eta oso urduri jartzen naiz.		